



Elena Asins

Zientzia artea denean



Xabier Gantzarain
@gantzarain

IZENBURURIK GABE (1977)

Tinta zuria kartoi beltzean. 40 x 50 cm

Tartean-tartean gogora ekarri beharreko artista da Elena Asins Rodriguez (Madril, Espainia, 1940ko martxoaren 2a-Azpirotz, 2015eko abenduaren 14a), badaezpada. Bere lanak hain ematen du hauskorra, desagertzeko zorian dagoena, ezen ematen baitu inork zaindu ezean segituan galduko dela. Ez da hala, noski, zuk eta nik baino gehiago iraugo du.

Espainiako Reina Sofia museoan jarri zuen erakusketa eder bat 2011n. Orduan *Berrian* arte kritikak egiten zituen Oihana Garrok haxe idatzi zuen: "Misterioa iruditzen zait arte munduan nola artista batzuk tontorrera heltzen diren eta beste batzuk ez. Orain arte, nahiko ezkutuan

mantendu izan da Asinsen lana, nahiz eta egin dituen 40 bakarkako erakusketak baino gehiago, eta beharrezkoa zen bistaratzea. Haren lanak XX. mendeko abangoardiaren tradizio konstruktibista, 60ko hamarkadako informazioaren teoria eta ordenagailu bidezko artea nahasten ditu, horretarako arte optiko eta minimalismora ere arrimatuz. Labur esanda, Asins ordenagailu bitartez egiten den artean aitzindaria da, eta, era berean, ideia protagonista duen arte kontzeptualaren erreferente nagusietako bat".

Pariseko Arte Ederren Eskolan ikasi zuen, Madrilen ibili zen, Stuttgarten, New Yorken. 1980an New Yorkera joan

zenean, Noam Chomsky ezagutu zuen, eta bere lana erakutsi zionean, hauexek izan omen ziren haren hitzak: "Hau hizkuntza bat da!".

Aitzindari eta erreferente, baina artearen mundutik aparte. Azpirotzen hartu zuen etxea, berak berritu, hantxe hil zen. "Arteak, edo transzendentziara egiten du, edo ez da artea. Nire lanak horregatik ez du batere zerikusirik modekin, eta horregatik bizi naiz hemen, Azpirotzen, beste alderdi hori ez dudalako maite".

Beste alderdi hori: eguneroko zurrunbiloa, munduaren zarata, bla bla bla bla bla. ■